



# Hospital de Día de **PEDIATRÍA**



## **Ingreso el mismo día de la intervención quirúrgica**

La Cirugía sin ingreso es una modalidad de tratamiento quirúrgico que tiene la peculiaridad de poder volver a casa, habitualmente, el mismo día de la intervención.



**Este documento recoge información para  
pacientes y familiares de niños o niñas a los que  
se les va a practicar una cirugía sin ingreso.  
Explica a las familias y allegados los pasos que  
se van a dar desde que se les programa para la  
intervención hasta los días posteriores al alta.**

**Depósito Legal:** SS 777-2016

**Edita:** Comunicación. OSI Donostialdea

## Cómo sabremos cuándo tenemos la intervención quirúrgica

Cuando se programe la intervención, desde el hospital nos pondremos en contacto por teléfono para indicarles la fecha, hora y lugar de ingreso.

Si les sirve de ayuda, pueden anotar esta información aquí:



Ingreso el día \_\_\_\_\_ a las \_\_\_\_\_ horas

## Qué cuidados tiene que seguir la víspera de la intervención quirúrgica

La noche anterior a la intervención recomendamos:

- Bañar y/o duchar al niño o niña solo con agua y jabón.
- No usar crema, colonia ni desodorante.
- Retirar pendientes, anillos, pulseras... y el esmalte de uñas, si están pintadas.
- Cenar y acostarse a la hora habitual.

Respecto a mantener ayunas, disponemos de dos pautas diferentes en función de la edad del niño o niña que va a ser operado:

### a) Niños o niñas mayores de 1 año

- La noche anterior puede cenar normalmente.
- Hasta 6 horas antes del ingreso, puede tomar leche, yogur...
- Hasta 3 horas antes del ingreso, puede tomar agua en pequeñas cantidades.
- Menos de 3 horas para el ingreso, los niños o niñas no podrán tomar o beber nada.
- El día de la intervención el niño o niña acudirá a la cita sin desayunar.



## b) Niños o niñas menores de 1 año

- Con lactancia materna: podrá tomar hasta 4 horas antes del ingreso.
- Con lactancia artificial: podrá tomar hasta 6 horas antes del ingreso.
- Se permite beber agua hasta tres horas antes de su ingreso hospitalario.
- El día de la intervención el niño o niña acudirá a la cita sin desayunar.



## Qué tiene que traer al hospital el día del ingreso

Es imprescindible traer la **documentación** que se le ha entregado en el hospital para realizar el procedimiento quirúrgico. La documentación que deben traer con ustedes es:

- Los consentimientos informados ya firmados:
  - Consentimiento de procedimiento anestésico.
  - Consentimiento de la intervención quirúrgica, si es que no lo han entregado con anterioridad en la consulta de cirugía.
- Tarjeta sanitaria del niño o niña.

Además, muchos niños o niñas agradecen tener a mano sus **muñecos u objetos preferidos**, cuentos, música o tablets, porque les pueden ayudar a sentirse más relajados.

El hospital dispone de pijama y material de aseo. Sin embargo, recomendamos traer **zapatillas de casa** para los niños o niñas.

Si el niño o niña que va a ser intervenido necesita tomar alguna leche o alimento **especial**, también recomendamos traerlo de casa y avisar en el día del ingreso a la enfermera sobre esta necesidad.

## Cuántas personas pueden acompañar al niño o niña el día de la intervención

El máximo permitido son **dos adultos** por niño o niña.

Los niños o niñas que son intervenidos mediante este procedimiento de cirugía sin ingreso van a estar poco tiempo en el hospital y durante su estancia necesitan tranquilidad y descanso para su recuperación. Recomendamos, en la medida de lo posible, por su bienestar y el de los demás niños o niñas que comparten la habitación, mantener las normas de respeto y silencio, evitando asimismo las visitas.



## A dónde debemos dirigirnos el día del ingreso

Presentarse en **Admisión de Pediatría**, ubicada en el edificio Materno-Infantil, planta 0 (Urgencias de Pediatría).

Ahí presentaréis la tarjeta sanitaria, para realizar los trámites administrativos de ingreso y seréis acompañados por un celador/a hasta el Hospital de Día de Pediatría. El **Hospital de Día pediátrico** está en la 2ª Azul.

En el hospital de día pediátrico, el personal de enfermería os acogerá y acompañará hasta la habitación.

- Estas profesionales verificarán junto a vosotros la identidad del niño o niña, el procedimiento quirúrgico que se le va a realizar y que las condiciones en las que se encuentra vuestro hijo o hija son las adecuadas para realizar la intervención.
- Os solicitarán también los consentimientos para adjuntarlos al resto de la documentación clínica con la que vuestro hijo o hija irá al área quirúrgica.
- Además, antes de ir al quirófano, la enfermera aplicará:
  - o Una crema anestésica en el dorso de las manos del niño o niña para reducir el dolor que puede causar la canalización de la vía venosa.
  - o Unas gotas en la nariz o administrará un ansiolítico debajo de la lengua para reducir su ansiedad.
- Podréis consultar con el equipo de enfermería vuestras dudas y compartir con estas profesionales las inquietudes que os hayan podido surgir.

## A qué hora y dónde le operarán

El quirófano está ubicado en la misma planta que la habitación. Cuando los profesionales que vayan a realizar la intervención quirúrgica puedan recibir al paciente, avisarán a los profesionales del hospital de día de pediatría para proceder al traslado. Tened en cuenta que la hora de ingreso no es la hora de intervención. La intervención se realizará aproximadamente en un intervalo de 4 horas desde el ingreso.

El celador le llevará al quirófano y solicitará que los padres o acompañantes que se dirijan a una sala de espera que está al lado. Es conveniente que un familiar se quede en la sala de espera para que al término de la intervención los familiares puedan ser informados.




## Qué pasará al terminar la intervención

- El profesional que ha realizado la cirugía informa a los familiares de cómo ha ido la intervención.
- Al niño o niña se le traslada a la "Sala de despertar", donde estará atendido por los anestesistas y enfermeras hasta que esté despierto y en condiciones de volver a la habitación.
- Permanecerá ingresado en el hospital de día hasta que pueda volver a su domicilio (dolor controlado, tolerancia a la dieta, constantes vitales normales, micción espontánea, sin signos de sangrado u otras complicaciones). El alta médica suele producirse a lo largo de la tarde.
- En caso de cualquier complicación durante su estancia, el equipo médico actuará en consecuencia y si es necesario tramitará su ingreso en el hospital.

## Los primeros días posteriores a la intervención

Al día siguiente, o dos días tras la intervención, recibiréis una llamada de las enfermeras del hospital de día de pediatría para comprobar que el estado del niño o niña es el adecuado y resolver algunas dudas o inquietudes que os hayan podido surgir tras la vuelta a casa.

En el informe de alta podrán consultar las indicaciones sobre el tratamiento que debe seguir en estos días posteriores a la intervención y sobre el seguimiento médico que puede requerir tras la intervención.



## ES MUY IMPORTANTE

- En caso de que el niño o niña tenga algún tipo de alergia, ya sea alimenticia o a medicamentos, comuníquelo tanto al equipo médico en la consulta como al personal de enfermería en el Hospital de día de pediatría.
- Si por algún motivo, fiebre, vómitos, diarrea..., no pudiera ingresar para ser intervenido en la fecha que se les ha notificado, deberán ponerlo en conocimiento llamando al teléfono 943 006147 del Servicio de Admisión de Urgencias Edificio Materno-Infantil, abierto 24 horas de lunes a domingo. Dicho servicio lo notificará por correo electrónico al servicio quirúrgico que corresponda.



Esperamos que vuestra estancia con nosotros sea lo más grata posible.

Muchas gracias por vuestra colaboración.



# Eguneko ospitalea

# PEDIATRIA



## **Ingresua operazioaren egunean bertan**

Ingresurik gabeko kirurgia tratamendu kirurgiko da  
eta haren ezaugarri nagusia zera da:  
pazientea egun berean itzultzen dela etxera.



**Dokumentu honetan pazienteentzako eta haurren familiartekoentzako informazioa dago, ingresurik gabeko kirurgiari buruzkoa. Familiartekoei esplikatzen die zer urrats emango diren interbentzioa programatzen denetik alta eman eta hurrengo egunak igaro arte.**



**Lege-gordailua:** SS 777-2016

**Edizioa:** Komunikazioa. Donostialdea ESI



## Nola jakingo dugu noiz izango den interbentzio kirurgikoa?

Interbentzioa programatzen denean deitu egingo dizuete telefonoz esateko ingresuaren data, ordua eta tokia.

Nahi baduzue hemen bertan apuntatu dezakezue informazio hori:

Ingresuaren eguna \_\_\_\_\_ Ordua \_\_\_\_\_



## Zer gauza egin behar ditugu interbentzioaren bezperan?

Aurreko gauean:

- Haurra bainatu edo duxatu ur eta xaboiz.
- Ez jarri kremarik, ez koloniarik, ez desodoranterik ere.
- Kendu: belarritakoak, eraztunak, eskumuturrak eta azkazaletako esmaltea.
- Afaldu eta oheratu betiko orduan.

Barauari buruz, honako jarraibide hauek (haurraren adinaren arabera) kontuan izan behar dira:

### a) Urtebetetik gorako haurrak

- Aurreko gauean afaldu dezake normal.
- Ingresatu baino sei ordu lehenagora arte esnea, jogurta eta antzekoak har ditzake.
- Ingresatu baino hiru ordu lehenago arte ura edan dezake (kantitate txikiak).
- Hiru ordu falta direnetik ingresurako ezin du ezer ere edan, ez eta jan ere.
- Ospitalera etorriko da gosaldu gabe.



## b) 1 urtetik beherako haurrak

- Amarengandiko edoskitzea: titia har dezake operatu baino 4 ordu lehenago.
- Edoskitze artifiziala: biberioia har dezake operatu baino 6 ordu lehenago.
- Ura edan dezake ingesua baino hiru ordu lehenago.
- Ospitalera etorriko da gosaldu gabe.



## Zer ekarri behar dugu ospitalera ingresu egunean?

Ospitalean emandako **dokumentazioa** derrigorrez ekarri behar da. Honako dokumentu hauek ekarri behar dira:

- Baimen informatuak sinatuta:

- Anestesiako baimen informatua.
- Interbentzio kirurgikoaren baimen informatua (kirurgiako kontsultan lehenago entregatu ez baduzu).

- Haurraren osasun-txartela.

Posible da ekartzea haurraren gauza kutunenak: **panpinak, ipuin-liburuak, musika, tableta** (horrek lasaiago egoten laguntzen die).

Ospitalean pijama eta garbitasuneko materiala badago, baina, edozein kasutan, komeni da **etxeko zapatilak** ekartzea.

Haurrak esne bereziren bat edo **elikagai bereziren** bat behar badu, ekarri eta abisatu erizainari haurraren behar dietetiko bereziez.



## Zenbat pertsona egon daitezke haurrarekin interbentzio egunean?

Gehienez **bi heldu** egon daitezke haurrarekin.

Ospitaleratu gabeko kirurgiaren bidez operatutako haurrak denbora gutxi egoten dira ospitalean, eta egonaldia bitartean lasaitasuna eta atsedena behar dute osatzea azkarragoa izan dadin. Garrantzitsua da, ahal den neurrian, zuen seme-alabaren eta gela berean dauden beste haurren mesedetan, isiltasun eta errespetu arauak gordetzea, bisitak saihestuta.

## Nora joan behar dugu ingresuaren egunean?

**Pediatriako Onarpena** joan behar duzue: Ama-haurren eraikinera, 0 solairuko Pediatriako Larrialdietara.

Bertan osasun-txartela aurkeztu behar duzue, eta ingresuko tramite administratiboak burutuko dituzue; ondoren, Pediatriako Eguneko Ospitalera lagunduko dizue zeladore batek: **Eguneko Ospitale Pediatrikoa** eraikin bereko bigarren solairuko alde urdinean dago.

Eguneko ospitalean erizain batek artatu eta gelara lagunduko dizue.

- Erizaintzako profesionalak egiaztatuko dute haurraren identitatea, eta konprobatuko dute zein prozedura kirurgiko egin behar zaion. Aztertuko dute ea haurra baldintza egokietan dagoen operatzeko.
- Baimen informatuak eskatuko dizkizute eta gainerako dokumentazioarekin batera jarriko dute, alde kirurgikora eramateko.
- Ebakuntza-gelara joan aurretik, erizainak honako hauek egingo ditu:
  - o Krema anestesikoa emango dio haurrari eskugainean, mina arintzako bide benosoa jartzen zaionean.
  - o Tanta batzuk botako dizkio sudurrean edo mingain azpian (antsiolitiko batekin), haurraren ezinegon edo beldurra ezabatzeko.
- Erizaintzako taldeari zalantzak galdetu diezazkiokezue, eta partekatu profesionalekin zuen kezak.

## Zer ordutan eta non operatuko dute?

Operazio-gela eta haurraren ospitaleko gela toki berean daude. Profesionalak, interbentzio kirurgikoa hasteko prest daudenean, eguneko ospitalera abisatuko dute, eta haurra eramango dute orduan operazio-gelara. Kontuan izan ingresu-ordua ez dela interbentzio-ordua. Ingresutik ebakuntza-gelara eraman eta operatu arte 4 ordu igaro daitezke.

Zeladore batek eramango du haurra ebakuntza-gelara eta gurasoei esango dizue itxoiteko ondoan dagoen gela batean. Komeni da beti egotea gela horretan haurraren familiarteko bat, kirurgialaria doanean informazioa emateko.




## Zer gertatuko da interbentzioa bukatutakoan?

- Kirurgialariak informatuko ditu familiartekoak interbentzioaz.
- Haurra esnatze-gelara eramango dute. Bertan anestesistek eta erizainek artatuko dute guztiz esnatu arte eta gelara eramateko baldintzetan egon arte.
- Eguneko Ospitalean egongo da etxera itzultzeko moduan egon arte (min kontrolatua, jateko moduan, bizi-konstanteak normalizatuak, txiza egiteko arazorik ez, eta konplikazio edo odolik gabe). Normalean, arratsaldean joaten dira haurrak etxera.
- Egonaldia bitartean edozein konplikazio gertatuz gero, talde medikoak erabakiko du ospitaleratuta gelditu behar duen ala ez.

## Interbentzio ondoko hurrengo egunetan

Hurrengo egunean edo hurrengo bi egunetan Pediatriako Eguneko Ospitaleko erizain batek deituko dizue etxera haurra ondo dagoen jakiteko eta zuen zalantzak edo kezak argitzeko.

Alta txostenean egongo da jarrita zer tratamendu hartu behar duen etxean eta zein jarraipen mediko beharko duen interbentzioaren ondoren etxean.



## OSO GARRANTZITSUA DA

- Haurrak edozein alergia mota baldin badu, jakiei zein medikamentuei, esan talde medikoari kontsulta unean eta Pediatriako Eguneko Ospitaleko Erizaintzako pertsonalari ere.
- Edozein osasun arazo dela medio (sukarra, gonbitoak, goragalea, kakalarrria) edo beste edozein arrazoiengatik haurra ezin bada etorri operatzera emandako egunean, jakinarazi behar duzue telefonoz Ama-haurren eraikinetako Larrialdi Pediatrikoetako Onarpen Zerbitzura deituta: 943 006147. Zerbitzu horrek abisatuko du dagokion Zerbitzu Kirurgikoa horretaz.

Espero dugu ospitaleko egonaldia atsegina izatea.

Mila esker zuen laguntzarengatik.

